



Munduko Euskal Etxeak, adiskideok:

Dakizuenez, Eusko Jaurlaritzak koronabirusaren (kovid-19) osasun-alerta ezarri du Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Espainiako Estatuko Gobernuak alarma-egoera deklaratu du Estatu osoan.

Europako gainontzeko herrialdeetan, Amerika, Asia eta Ozeaniako herrialdeetan bezala, non euskal presentzia antolatua dagoen, osasun-prebentzioko neurriak ere hartzen ari dira; hortaz, errespetatu eta bete ditzagun guztiok eskatzen ari direna.

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzak bere programak ahalik eta normaltasun handienarekin aurrera ateratzen jarraitzen du, mundu osoan bizitzen ari garen egoera honen baitan:

- **2020ko dirulaguntzak euskal etxeentzako**, datozen egunotan bidaliko dizkizuegu errekerimenduak dokumentazio gehigarriak eskatzeko, behar izanez gero.
- **Laguntzak egoera larrian dauden pertsonentzako**, datorren astean Gobernu Kontseilutik pasatuko da deialdia, eta ahalik eta azkarren deialdia egitea espero dugu.
- **Gaztemundu 2020**, aurreikusita dago urriaren 18tik (Euskadira iristea) azaroaren 1era (Euskaditik irtetea) egitea, Gasteizen, euskal gastronomian trebatzeko euskal etxeetako gazteak. Aurrera goaz programa antolatzen, eta normaltasunez egin ahal izatea espero dugu.

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan gure lantaldearen zati bat bulegoan dugu, eta beste zati bat telelanean funtzionatzen, etxean egiten beharra, **gure programa guztiak normaltasun osoz mantentzeko** eta euskal etxeei ahalik eta zerbitzurik onena ematen jarraitzeko.

Zuen esanetara jarraitzen dugu **(+34) 945 018 127** telefonoan eta **euskaletxeak@euskadi.eus** helbide elektronikoa, sortu ahal den edozein arazori erantzuna emateko.

Ez dira sasoi atseginak bizi ari garenak, baina osasun-aginteak jarraituz aurre egin ahal izango diogu denok batera mundu mailako pandemia honi, zeren eta prebentzioa elkarlana baita!

Agur bero bat,

  
 Gorka Álvarez-Aranburu  
**Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria**  
**Director para la Comunidad Vasca en el Exterior**

  
 EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO  
 PRESIDENCIA  
 LEHENDAKARITZA  
 2020 MAR. 23  

SARRERA	IRTEERA
Zk. /	Zk. 134029(4)